

<< EAEko Industria Ondarea >>

M. Ibañez - M. Zabala

Área 1- Patrimonio Cultural

1. Arloa: Kultura Ondarea

(Euskarazko bertsioa)

Febrero, 2003ko otsaila

EAE-KO INDUSTRIA-ONDAREA

Maite Ibañez – Mar Zabala (Industri Ondare eta Herri Laneko Euskal Elkarte)

1.- Aurrekariak

1.1 Txostenaren helburuak eta esparrua

Industria Ondareari buruzko txosten honek 2000ko azaroaren zazpian sortutako Kulturaren Euskal Kontseiluak ezarritako helburuak behar bezala betearazi nahi ditu. Juan Jose Ibarretxe lehendakariaren hitzak gogoratu, Eusko Jaurlaritzak helburu hau ipini zion, orduan, Kontseilu berriari: kultura-proiektu kolektibo eta ireki bat egitea eta esku hartzen duten eragile guztien arteko lankidetzaren behar bezala sustatzea. Horren helburua da, hain zuzen: *“XXI. mendean euskal kulturaren erronka nagusiari eraginkortasunez erantzuteko aukera emango duen kultura-espazio egituragoa sortzea: kultura sortzeko eta ekoizteko gaitasun nahikoa izatea, munduko herritar eta euskaldun izaten segi dezagun, eta ohitura eta modernotasuna, banakotasuna eta unibertsaltasuna kontuan izango dituen sintesi-eragiketa bat garatzea.*

2001eko maiatzaren zazpian bildu zen lehen aldiz osoko bilkuran Kulturaren Euskal Kontseilua. Erakunde berri haren helburu nagusitzat ezarri ziren kultura-politika hobetzeko behar diren neurriak proposatzea, Kultura Plana egitea eta plana martxan jartzearen eta eraginkortasunaren ebaluazioa. Jarduera-ildo guztiak behar bezala aztertzeke, lan-proposamena 18 txostenen bidez ezarri zen. Kultura Ondare higarri eta higiezinari dagokion txostenean sartzen da Industria Ondarearen analisia.

2002aren amaieran, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak –ondare horren balioa, interesa eta espezifikotasuna kontuan hartuta– Industri Ondare eta Herri Laneko Euskal Elkarteari eskatu zion industriaren kultura-ondarearen egoerari buruzko txostena egiteko. Txosten horrek, azterketarako eta hausnarketarako tresna gisa erabiltzeko aukera izateaz gain, kudeaketa-tresna eraginkorra izan behar zuen administrazioarentzat.

Eta, hain zuzen ere, aztertzen hasi baino lehen, berriz ere aipatu behar dugu gure Industria Ondarea oso aberatsa eta heterogeneoa dela, azken urteotan oso elementu garrantzitsuak desagertu diren arren. Material-hondar horiek industrializazioaren prozesuaren adierazgarri dira; izan ere, prozesu horrek beste leku batzuetan baino askoz ere gehiago aldatu du gure herrialdearen irudia. Ez zaio inori ezkututzen gure historiari hurbilenak lotura handia duela industriarekin, fabrikekin, oinarrizko gaien ekoizpenari zuzenki lotutako jarduera ekonomikoekin eta ekipo- eta kontsumo-ondasunekin.

Industria-jarduerak Euskal Autonomia Erkidegoaren irudi historikoa kapitalizatu du azken bi mendeetan, eta gaur egungo gizartearen garapenak eta formulazioak adierazten duen ekonomia-zabalkundearen eta -bilakaeraren motorra izan da. Prozesu horretan sortutako ondare materialak nabarmentzen du, nola-hala, Euskal Autonomia Erkidegoa, eta, horregatik, bere nazio-identitatearen adierazgarri garbitzat hartu behar da.

1.2 'Industria Ondarea' kontzeptuaren mugak

Industria Ondarea eta *Arkeologia* konbentzionalki onartu badira ere, praktikan zaila da diziplina honetan gaiaren mugak eta muga kronologikoak ezartzea.

Zenbait autoreren iritziz, garai guztietako erauzketa-, eraldaketa- eta garraio-egiturak barne hartzen ditu. Baina, zergatik ez da denboran atzera egin behar –Erdi Arora itzuli, Neolitikora edota Paleolitikora–, lan-egiturak kontuan hartu behar badira? Buchanan-en iritziz, adibidez, industria-monumentua da ekoizpen-sistema zaharkitu baten edozein hondar, adibidez: historiaurreko silex-meatokiak, gaur egun zaharkituta dagoen aeroplanoa edo konputagailua.

Beste zenbait analistaren iritziz, lehen industrializazioaren hondarrak izan behar dute, batez ere, kontuan, zeren eta lehen industrializazioak egungo egoera konfiguratzeko lagundu baitzuen. Hala ulertuta, Industria Ondareak barne hartuko luke *“batez ere, Industria Iraultzako edozein eraikuntza edo egitura finko edo beste motaren batekoa, bere kabuz, edo oinarrizko beste instalazio edo ekipamendu batzuekin batera, prozesu industrialen edo teknikoaren jaiotza edo garapena adierazten badu”*.

Kenneth Hudson-ek industria-monumentuaren kontzeptua bigarren eta hirugarren Iraultzaren hondarretaraino darama, alegia, petrolioari eta elektronikari dagozkionak ere barne hartzen ditu, hurrenez hurren. Autore horrentzat, horiek lehen Iraultzakoak bezainbeste babestu behar dira.

Guk *Industria eta Herri Lan Ondarearen Inbentarioa* egiteko ezarri zen kontzeptua hartuko dugu kontuan. Hori dela eta, denboraren mugei dagokienez, XIX. mendearen erdialdean eta XX. mendearen 40ko hamarkadan ezartzen dira. 1841. urtean ezarri zen mugarrria (aduanak kostaldera eraman zituztenean); horrek erabat aldatu zituen koordinatu sozioekonomikoak eta, hortik aurrera, industria-motako fabrikak ugaritzen hasi ziren. Azken data hori ere konbentzionalki proposatu zen, gertakizunei eta material-hondarrei buruzko ikuspegi historikoa bermatzeko, eta, gainera, orduan inuzenteki pentsatzen zelako, data horretatik aurrera eraikitako fabrikek ez zutela arazo handirik izango.

Industria-gaiak kontzeptu zabal gisa ulertu behar dira; eraikinak, egitura arkitektonikoak eta ekoizpen-makinak ez ezik, beste gauza asko ere barne hartzen baititu: lehengaiak jasotzeko eta produktuak merkaturatzeko erabiltzen ziren garraiobideak eta komunikazioak, bizitokiak, langileen elkarteak eta laguntza-zentroak, zerbitzu publikoak eta, azken batean, erauzketa- eta industria-jarduerak eraldatutako paisaiak berak.

2.- Nazioarteko zenbait erreferentzia

2.1 Erakundeak

Gerra-gatazkek –batez ere, Bigarren Mundu Gerrak– eragindako hondamenaren eta XX. mendean izan diren aldaketa ekonomiko azkarren ondorioz zabaldu da, hein handi batean, Kultura Ondarearen kontzeptua; hala, 50eko hamarkadaren erdialdetik aurrera barne hartu ditu eraikuntza industrialak.

Britainia Handian –Industria Iraultzaren sorlekua– eman zitzaion aintzatespen hori lehen aldiz, *Council British Archaeology*-ren bidez; erakunde horrek 1959an sortu zuen industria-monumentuak zaintzeko batzorde berezi bat –*The National Survey of Industrial Monuments*–. Gogoangarria da historialari eta zientzialari britainiarrek egin zuten kanpaina Londresko Euston tren-geltokia eraits ez zezaten; azkenean, 1962an bota zuten.

60ko hamarkadan Industria Arkeologia diziplina berria sistematizatu zenetik – anglosaxoien lanaren ondorioa da, batez ere–, Industria Ondarea finkatu egin da eta gaur egungo gizartearen ikur ukazina bilakatu da. 60ko hamarkadaren amaieran, Alemaniak, Frantziak eta Belgikak industria-ondarea babesteko Britainia Handiko kanpainen lekukoa hartu zuten; monumentu-mota horrentzat, tradizioaren kultura-ondarearen osagaiei zegozkien aintzatespen juridikoa, egitura administratiboa eta babes-politikak eskatzen zituzten.

Ildo horretatik, ekimen hauek dira aipatzekoak, besteak beste: Alemaniako Meatzaritzaren Museoa (Bochum), Britania Handiko Ironbridge Museoa, eta Belgikako

Écomusée de Le Creusot, Saint-Etienne-ko Fabrika Museoa edo Argenteau-Trimbleaur meategikoa.

1971n Industria Arkeologia defendatzeko lehen erakundea sortu zen: SIA. Urtebete geroago egin zuen inaugurazio-bilera New York-en. Nazioarteko lehen biltzarra Ironbridge-n egin zen (1973) eta bigarrena Bochum-en. Bochum-eko biltzarrean (1975), elkarte iraunkor bat sortu behar zela erabaki zen. Erakunde hori, azkenik, Grangarde-ko (Suedia) biltzarrean osatu zen (1978): TICCIH, *The International Comité for the Conservation of the Industrial Heritage*. Batzorde horrek Industria Ondarea aztertzea, inbentariatzea, kontserbatzea eta zabaltzea, eta arlo horren inguruan interesa zuten pertsonen arteko harremanak sustatzea zuen helburu. TICCIH gaur egun ekimen finkatua da; horren adierazgarri da, hain zuzen ere, 2003ko uztailaren 10-14 bitartean, Moskun izango den XII. Nazioarteko biltzarra.

1988ko urrian hasi zen TICCIH estatuko ordezkariekin bilerak egiten. Lehena Bartzelonan izan zen; bilera horretan, Giza Ondare gisa aintzatesteko aukera zuten industria-monumentuen zerrenda egin zen: Kataluniatik *Colonia Güell* eta *Fábrica Aymerich, Amat i Jover*; Madrileko Autonomia Erkidegotik, *La Granja*; Andaluziatik, Motrileko *Azucarera*; eta Euskal Autonomia Erkidegotik, *Bizkaia Zubia*.

Europako Batzordeak, halaber, ondare gazte horren defentsan lan handia egin du. 1975ean, hain zuzen ere, Europako Parlamentuaren Batzarrak "*Industria Arkeologiari buruzko gomendioa*" onartu zuen, eta hamar urte geroago, hitzaldiak antolatzen hasi zen, batez ere, industria-monumentuen balorazioan arreta berezia ipinita (1985 Lyon, 1986 Madril, 1988 Bochum, 1989 Londres/Durham).

TICCIH, UNESCO-ICOM-ICOMOS eta Europako Kontseiluaren Hiri Politiketarako eta Ondare Arkitektonikoaren Zuzendaritza Batzordearen jarduerekin batera, Europako Batzordeko Zientzia, Ikerketa eta Garapenerako Zuzendaritza Nagusiak Industria Ondarea berreskuratzeko interesa izan du. RETI proiektua eta STEP programa, besteak beste, dira horren adierazgarri.

Ipar Europa aitzindari izan zen industria-ondarea defendatzen eta aintzatesten; eta, gero, beste zenbait herrialde industrializatu hasi ziren, besteak beste, AEB, Kanada eta Japonia. Hego Europan ekimenok geroago iritsi ziren, Portugalen, Italian edo Grezian oso elkarre aktiboak izan arren. Ekialdeko Europako herrialdeak ere hasi dira ondare hori zaintzen; Polonia buru da horretan, eta nabarmentzekoa da, halaber, Hungarian, Txekian eta Eslovenian egiten ari diren lana. Azken urteotan, lan-taldeak sortu dira Latinoamerikan, Asiako zenbait tokitan eta Hego Afrikan.

2.2 Berreskuratze-ekimenak

Industria Ondarea berreskuratzeko, nazioarteko ekimenik ezagunena, segur aski, *Ironbridge Gorge Museum*-a da; Severn ibaiaren ibarrean dago eta eskualde hori **Britainia Handiko** burdin ekoizlerik handiena izan zen. 1959an, Coalbroodale-ko galdategiaren jabeek – tokiko historialari batek animatuta– aurkitu zuten Abraham Darby-k, 1709an, burdina urtzeko lehenengoz kokea erabili zuen labea. Labe horren ondoan museo txiki bat sortu zuten eta galdategi horrek egindako produktuen erakusketa ipini zuten ikusgai. 1968an, Ironbridge ibarreko museoaren fundazio sortuberriak hartu zuen kultura-proiektu horren ardura, eta ibarreko Industria Ondarea berreskuratzeko eta lekua eta ekoizpen-teknikak zaintzeko konpromisoa hartu zuen. XVIII. mendearen amaierako burdinazko zubi zaharra (*The Iron Bridge*) konpontzen hasi ziren eta 1979an inauguratu zen, jada, izen hori hartuko zuen burdinaren museo handia. Handik gutxira, *Blits Hill* aire zabaleko museoa gauzatu zen: garai viktoriarreko herri tipiko bat egin zen, harrikatz-putzuekin, burdinolarekin eta adreilu-fabrikekin. Halaber, museo bilakatu ziren *Jackfield*-eko zeramika-fabrika eta *Coalport*-eko portzelana-fabrika. Gainera, Darby familiaren bi etxetzar eta langileen zenbait etxebizitza zaharberritu ziren.

Manchesterko ehungintza ezagunean gauzatutako jarduerak ere aipatu behar dira. Izan ere, Manchester eta hiriaren ingurua –1.500 km²-ko eremua– garrantzitsua izan da Ingalaterrako industria- eta hiri-hazkundean. Oraindik ere, zutik diraute lekuko ezaugarri diren adreilu gorri eta terrakotaz eraikitako kotoi-fabrikak –tokiko industriak itxura berezia du horregatik–: “1732-1924 bitartean, 2.400 ehun-fabrika eta arropari akabera emateko fabrika baino gehiago eraiki ziren Manchester Handiaren eremuan. 1988rako Manchester Handiko Kotoi Fabriken Azterketa amaituta zegoen, eta ordurako, kotoi-industriaren gainbeheraren ondorioz, fabrika horien erdiak baino gehiago galdu ziren. Gaur egun, fabrika-kopurua are txikiagoa da, 800 inguru baino ez baitira geratzen” (Michael Nevell, 2002).

Manchester inguruko Industria Ondarea zaintzeko gaur egun arte garatu den politikak hiru fase izan ditu: 70eko hamarkadaren lehen urteetan, premia handiz egin zen arriskuan zeuden instalazioen behin-behineko inbentarioa, eta, orduan, gutxi sistematizatutako politika erabili da, eraikuntza jakin batzuk berriz erabiltzeko. Zalantzarik gabe, bigarren fasearen jardura garrantzitsuenak *Liverpool Road Railway* eta *Castlefield Basin* geltokiak zaharberritzea eta berriz urbanizatzea izan ziren; geltoki biak hirigunean zeuden, eta *Manchesterko Zientziaren eta Industriaren Museoaren* egoitza bilakatu ziren (museoa 1983an inauguratu zen). Museoak munduko bidaiari-geltokirik zaharrena barne hartu zuen, zenbait eraikuntza historiko interesgarrien artean.

1988tik –proiektu horrekin batera– ari dira Castlefield-eko eremu osoa *Hiri Ondareko Parke* gisa prestatzen. Prozesu honen eragile nagusia Manchester Garatzeko Korporazio Nagusia da, baina Udalak, Gobernuak, Eskualde Garapeneko Europako Funtsak, Ondare ingelesak, Millennium Fund-ek eta zenbait inbertsio pribatuk ere hartu dute parte: “*nahi ez ziren industriak beste leku batzuetan jarri ziren, utzikeriari amaiera eman zitzaion, Bridgewater-eko ubidearen eskulua konpondu zen, Merchant eta Middle ubideen biltegiak etxebizitza bilakatu ziren, eta ubidean zehar, etxebizitzak eta hotelak eraiki ziren, bai eta aire zabaleko ekimenetarako estadio bat ere –Staffordshire-ko biltegiaren ubidearen besoak erabili ziren–*” (Michael Nevell, 2002).

Hirugarren fasean –90eko hamarkadatik aurrera–, industria-instalazioen inbentarioa eta eraikinen gaikako azterketak zehaztasun handiagoz ari dira egiten, balio eta interes desberdineko elementuak dituen hain multzo zabalean, konparazio egiaztatuak egiteko aukera izateko. Informazio-emari horri esker, hirigunea konpontzeko prozesuan sakondu ahal izan zen: hortaz, *Ancoats* proiektuaren langaia munduko lehen industria-aldiria –lurrunean oinarrituta– da; proiektu horren baitan dago gaur egun Manchesterren geratzen den irute-fabrikarik zaharrena (1799koa).

Bestalde, **Alemaniko** industria-garapenak antz handia du Euskal Autonomia Erkidegokoarekin; jardura ekonomikoaren bi sektore tradizionaletan oinarritu da, batez ere: meatzaritzan eta burdinaren eraldaketan. Tradizio luze hori jada 60ko hamarkadatik sendotu da, museo-proiektu ugari gauzatu baitira, Industria Ondarearen hedakuntzan oinarrituta. Baliteke nazioartean ezagunenak *Bochum*-eko biak izatea: trenbidearena eta meatzaritzari dagokiona.

Ikatz Meategiaren Alemaniako museoa 1930ean sortu zen. Eraikuntza horretan 68 metroko altuerako dorrea da nagusi –Dortmund-eko Germania meategi zaharraren 2/4 Zollern putzua–; dorre horretatik hiriaren sekulako ikuspegia dago, eta herriaren ikur bilakatu da. Dorre horren azpian dagoen museoa, mota horretako garrantzitsuena da mundu mailan. Urtero 500.000 pertsona inguru joaten dira instalazio horietara. Museoko korridoreetan, naturaren produktuak arte bilakatuta aurki daitezke, modelatutako mineralak, hain zuzen ere; eta ustiapen-galerien barnean dauden 20 korridorek edo terrazek harrikatzaren ustiapenaren munduan barneratzeko aukera ematen diete bisitariei.

Museo tekniko konbentzionalak dira, elementuak gauzatu ziren testuinguruetatik kanpo daude erakusgai; baina, gaur egun, Industria Ondarea berreskuratzeko ekimenentzat ohiko erreferentzia izaten jarraitzen dute (Santacreu J.M. 1992).

80ko hamarkadaren erdialdetik, Alemaniak XX. mendeko labe garaien lau talderen kontserbazioa sustatu du: *Nuenkirchen* eta *Hatigen*-ko ale bakanak eta *Völklingen* eta *Duisburg-Meiderich*-eko instalazio siderurgikoak; horietan oso-osorik gorde dira ekoizpen-prozesuak. *Nuenkirchen*-eko esperientziaren inguruan asko eztabaidatu izan da; kolore biziz pintatutako labe isolatu horrek “*altzairuzko maketa ezereza*” kalifikazioa jaso du. Kilometro gutxira *Völklingen* dago, Alemaniako profil metalikoen manufakturagunerik handiena; kasu hori desberdina da oso. 1986an itxi zutenetik, ekoizpen-sistemaren elementu guztiak gorde dituzte: 6 labe garai, 10 labe, karga labeetara garraiatzeko sistema, gasa arazteko eta tratatzeko instalazioa, ikatz-deposituak, 4 koke-bateria, etab. Burdinazko koloso hori ondasun-iturri garrantzitsua bilakatu da, turistikoki sustatu delako. 1994ko abenduan, UNESCOk Giza Ondarearen gune historiko-industrialia izendatu zuen.

Alemanian, eremu horretan, Ruhr eta Rhin ibaiak bateratzen diren eremuan gauzatu dira horrelako jarduera gehien; ikatz-erazketarekin eta altzairu-ekoizpenarekin lotutako industria-entresa gehien dagoen Europako eskualdea da. Eremu horretan jende asko bizi da, 5.000 km² ditu eta 5.400.000 biztanle; eta azken hogeita hamar urteetan, desindustrializazio-prozesu oso azkarra izan du: “*ekonomikoki behera egin duen eta paisaia hondatua duen eremu horretan, oso garrantzitsua zen etorkizunerako itzaropen berriak bilatzea*” (Collinet Hans-Dieter, 2002).

Emscher Park Eraikuntzaren Nazioarteko Erakusketa izan zen, 90eko hamarkadaren hasieran, Renania-Westfalia estatuan egindako ekimen garrantzitsuenetako baten abiapuntua. Ez zen ohiko erakusketa bat izan, industriagune zaharren etorkizuna diseinatzeko proiektuen tailerra baizik; eta tokiko agintariek, industriek, elkarteek eta sustatzaile pribatuek aktiboki hartu zuten parte. Jarduera-programa horren ezaugarrien artean, lau dira aipagarriak: abandonatutako enklabe eta instalazioak baino ez dira erabili; energia aurrezteko irizpideak aplikatu eta ingurumena kaltetzen ez duten materialak erabili dira; industrializazioak izugarri hondatutako paisaia izaera ekologikoko neurriekin birsortu zen; eraikuntzak eta ekoizpen-zentroak industria-kulturaren lekuko gisa gorde dira. Gaur egun arte fabrika zaharrak, biltegiak, meategiak, galdategiak, zepategiak, etab. zaintzeko egindako 20 proiektu gauzatu dira.

Proiektu hori bikaintzat jo du TICCIHaren ohorezko biziarteko lehendakari Louis Bergeronek; Europako Industria Ondarearen berrerabilera aztertu ondoren, inspirazio-eredu gisa hautatu du. IBA (*Internationale Bau Ausstellung*) erakundeak, besteak beste, Emscher Park garatu du eta *Oberhausen* gas-fabrikaren, *Gute Hoffnungs* deposituan edo *Zollverein Schacht XII*-ean aritu da; izan ere, “*bizitza berri bat lortu du iraganeko lekuko horien heriotzaren ondoren, alegia, historian zein bizimodu berri baten irudikapenean oinarritutako bigarren bizitza*” (Bergeron Louis 2002).

“Industria-monumentua” terminoak adierazten du hobekien Emscher parkearen izaera; kontzertuak egiten dira, garai batean siderurgia-instalazio bat zegoen lekuan eta jendeak irtenaldiak, ibilaldiak, etab. egiten ditu ikatz-mendixken artean. *Oberhausen*-eko gasometroan kultura-emankizun ugari izaten da: entzunaldiak, kirol-ikuskizunak, batzarrak, etab.; *Erfahrungsfed Zollverein* meategiaren igogailuan, gaur egun, haurrak eta helduak turbinen, makinaren eta erreminten funtzioak aztertzen aritzen dira. Karl Ganser irakasleak, IBAko zuzendari ohiak, hau esan du: “*IBA ez da erakutsi behar, norberak probatu behar du IBA!*”.

Frantzia Industria Ondarea berreskuratzeko jardueraren historia motzean ekomuseoak izan dira, zalantzarik gabe, ekarpenik garrantzitsuenak. Ekomuseorik ezagunena *Le Creusot* da; Borgoinako metalurgia eta meatzaritzako eskualde zaharrea dago. Frantziako museo-programaren barnean daude aire zabaleko ikatz-meategia, langileen etxebizitzak, ubideko etxea, fosilen museoak, eskola eta *château de la verrerie* delakoa –*Gizakiaren eta Industriaren Museoa* dago eta, XVIII. mendean, beirategi garrantzitsuenetako bateko labeak, tailerrak, langileen etxebizitzak eta administrariaren bulegoak biltzen zituen–. *Le Creusot*-ek paper garrantzitsua izan du herritarrek sentsibilizatzeko eginkizunean; herritarrek ingurune bertako kulturaren esanahia antzeman dute. Izan ere, haran horretako herritarrek aktiboki hartu zuten parte etxebizitzak zaharberritzen eta, eskualdea krisi sakonean zegoenean, *Industria Turismoa*

*Garatzeko Komunitatearen Elkarte*a sortu zuten; elkarteak zuen gidari boluntarioak – meatzaritzatik eta metalurgiatik erretiratutakoak– trebatzeko ardura zuen.

Frantzian ere beste ekimen-mota bat erabili izan da, ekomuseoen esperientzia aitzindarietatik harantzago. Berez, teknika- eta industria-museo aukera zabala dago turismora egokituta, Ingalaterra edo Alemanian bezalaxe. Adibide ona dira ehungintza-museoak, besteak beste: Lyongo *Ehunen Museo Historikoa* edo Saint-Etienne-ko *Arte eta Industria Museoa*. Industria Ondarea berriz erabiltzeko esperientzia original baten proiektua ari dira garatzen, Paris hiri monumentalean berriaz martxan jartzeko: *Parisko Grands Moulins* eraikin zahar erraldoian Parisko erdiguneko unibertsitate handienetako bat ipiniko dute, eta eraikinean bistan utziko dute makinaren zeharkako sekzio osoa.

Belgikan *Grand Hornu*-ren proiektua da ezagunena, *Industria Arkeologiako Wallonia Elkartearen* eta Hainaut probintziako gobernuaren arteko lankidetzaren ondorioz sortua. Borinageko harriatz-eskualdearen muinean dauden tailer-multzo eta industria-kolonia bat dira; XIX. mendearen lehen hamarkadetan sortu ziren eta XX. mendearen erdialderaino funtzionatu zuten. *Industria Arkeologiaren Museoaren* proiektuarekin batera –1992an inauguratu zen–, *Gran Hornu*-ko zenbait tailer zahar gorde egin dira berrikuntza teknologikoko parke bat osatzeko enpresa txikiak ipintzeko. Blégny-Trimbleur-en –Liège-ko ipar-ekialdean– dauden *Argenteau-Trimbleur* ikatz-meategien esperientzia ere interesgarria da. Haraneko azken ustiapen hori 1980an itxi zuten eta berehala bilakatu zen turismogune; meategia barnetik ikustea da jarduerarik erakargarrienetako bat.

Estatu mailari dagokionez, berriz, eta logika historikoa erabiliz, industrializazio handieneko bi komunitateak izan dira ondare hori baliozkotzen gehien saiatu direnak. Jakina, Katalunia eta Euskal Autonomia Erkidegoaz ari gara.

Kataluniak badu dagoeneko Industria Arkitekturako osagai berezien zerrenda, eta komunitate horretako Ondare historiko-artistikoaren inbentarioan sartu da. Baina, arlo horretako zaintza-politikaren gakoa *Kataluniako Zientzia eta Teknika Museoa* da, zalantzarik gabe. Terrassan dago, Bartzelonatik 25 km-ra, *El Vapor Aymerich*, *Amat i Jover* estilo modernista duen fabrika zaharrean; 1907-1909n eraiki zuen Lluís Muncunill i Parellada arkitektoak. Gaur egun, Europako industria-eraikuntzarik ederrenetakotzat hartzen da.

Museoak –11.000 m² ditu– Europan izen handiko ikerketa- eta ekimen-zentro gisa eskarmentu handia du jada. Herrialde guztian banatuta dagoen museo nazionala da; egitura deszentralizatua duenez, Kataluniako hainbat lekutan espezializatutako 16 sukurtsal ditu (*Museu Molí Paperer de Capellades, Museu de la Pell d'Igualada i Comarcal de l'Anoia, Museu del Suro de Palafrugell, Museu de la Colònia Sedó d'Esparreguera, Serradora d'Àreu, Museu de la Colònia Vidal de Puig-reig, Museu de la Tècnica de Manresa, Museu de l'Estampació de Premià de Mar, Museu de les Mines de Cercs, Farinera de Castelló d'Empúries, Col·lecció d'Automòbils Salvador Claret, Museu del Ferrocarril de Vilanova i la Geltrú, Trens Històrics de Ferrocarrils de la Generalitat de Catalunya, Museu de la Fàbrica Asland del Clot del Moro de Castellar de N'Hug, Museu de les Mines de Bellmunt del Priorat*). Horrek guztiak Industria Ondareko 24 monumentu berreskuratzen lagundu du. Gainera, 100 udalerritan eragina duten 10 ibilbide kultural konbinatu baino gehiagoko eskaintza turistikoa egiteko aukera ematen du – lau hiriburuak kontuan hartu gabe–.

Zientzia eta Teknikako Museo horren helburu garrantzitsuenetako bat da Industria Ondarea zaintzea; horren bidez, Kataluniako industrializazio-prozesua azal baitaiteke, izaera nazionalaren ezaugarri garrantzitsuenetako bat, alegia.

Erreferentziazko proiektu horrez gain, aipatzekoak dira **Bartzelona** hirian industriagune zaharrak berreskuratzeko jarduerak: *Atarazanas* itsas museo gisa prestatzea, *El Borne-ko Merkatua* berreskuratzea –gaur egun liburutegi publiko handia da– edo Barcelonetako portu-biltegi handiak; “la Caixa” fundazioaren egoitza dagoen *Casarramona* fabrika (gainera, Isozakiren proiektu garrantzitsua dago kanpoan); Poble Nou-ko *Vapor Llull* fabrika konpontzea, *Torres Amat* fabrikako liburutegia, *Ciudadelako Parkeko Ur Deposituko* unibertsitateko liburutegia; edo *Harinera del Clot* kultura-zentroa.

3.- Egoeraren diagnostikoa

Gure azterketan, elkarri lotuta dauden hiru alderdi landu nahi izan ditugu: batetik, Industria Ondarearen arloan **jakintzaren** eta ikerketaren egoera; bestetik, hori **hedatzeko** eta baliozkotzeko ekimenak, eta, azkenik, monumentu horiek zaintzeko erabiltzen diren **babes-**politikak.

Aipatu dugun bezalaxe, estatu mailan, Katalunia eta Euskal Autonomia Erkidegoa izan dira Industria Ondarearen ikerketa-, hedapen- eta zaintza-prozesuan aitzindari. Bilbon (1982) eta Bartzelonan (1988) izan ziren «**Industria Ondarea babesteari eta balioa berriz harrarazteari buruzko jardunaldiak**», lehenak eta bigarrenak, hurrenez hurren; elkarrekin antolatu zituzten Kataluniako Generalitateko Comissió Interdepartamental de Recerca i Innovació Tecnológica batzordeak eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak. Mende batean baino gehiagoan ekonomia-garapenaren motor gisa aritu diren eta industriaren atzerkadaren ondorio larriak –ondorio ekonomikoak, gizartean, kulturen eta ingurumenean– lehen sentitu dituzten bi komunitateetan, hain zuen, sortu da kontzientzia hori.

Prozesu horrek dena suntsitzeko joera izateko arriskuak hainbat gizarte-talderen kezka eragin zuen Euskal Autonomia Erkidegoan, 80ko hamarkadaren hasieratik aurrera. Eta, kezka horren ondorioz sortu zen, hain zuzen ere, 1989an, **Industria Ondarearen eta Herri Lanaren Euskal Elkarte**a. Elkarte horren helburua da industria-ondarea ezagutzea, hedatzea eta zaintzea, eta hainbat arlo profesionaleko eta, kultura-ondareari dagokionez, sentsibilitate desberdina duten erakunde eta hiritarrak biltzen ditu.

Garai berean, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Deustuko Unibertsitateko Deiker Institutuak anbizio handiko **ikerketa-** eta **hedapen-**proiektu bat jarri zuten martxan, eta horren emaitzak hiru argitalpen monografikotan islatu ziren: “Arqueología Industrial en Bizkaia” (1988), “Arqueología Industrial en Guipúzcoa” (1990) eta “Arqueología Industrial en Alava” (1992).

Aipagarria da, halaber, “Catedrales de la Industria” liburua (1994); oinarritzkoa da Bilboko Itsasadarraren ezkeraldea eta Bizkaiko meatzaritza-arroa ezagutzeko. Urte horretan bertan argitaratu zen hormigoi armatuaren jatorriari buruzko eta Bizkaian hori sartzeari buruzko azterketa osoa: “Fábrica Ceres de Bilbao”, Bizkaiko Aparejadoreen eta Arkitekto Teknikoen Elkargoak argitaratua.

Bizkaiko Foru Aldundiak, halaber, zenbait azterketa eta inbentario partzial –presen eta zubien katalogoak– eta liburu argitaratu ditu urte berean: “La Encartada S.A., Fábrica de Boinas” (1991), “El Puente de Vizcaya” (1993), “La Compañía de Maderas” (1994) edo “Vidrieras de Arte, un taller de luz”. Eta, duela gutxi, lurraldeko Industria Ondarearen elementu bereziei buruzko zenbait ale monografiko, hala nola: “Elorrietako Ur Ponpagailua”, “Bizkaiko Labe Garaietako 1 eta 2. labe garaiak”, “La Carola garabia” edo “Deustuko Zubia”. 1997an, Lenbur Fundazioak Legazpia udalerrri metalurgikoaren Industria Ondareari buruzko azterketa bat argitaratu zuen. Bestalde, Eusko Jaurlaritzaren Turismo Sailak “Patrimonio Industrial, Nuevos Recursos Turísticos” izeneko liburua argitaratu zuen, 1997an, Industria Ondarearen eta Herri Lanaren Euskal Elkartearekin batera. Beste zenbait azterketa monografiko sustatu ditu

Donostiako Ontzi Museoak: “Las Conservas de Pescado en el País Vasco. Industria y Patrimonio” (1997) edo “Patrimonio y Construcción Naval” (1998). Trenaren Euskal Museoak sortu dituen liburu adierazgarrienak dira: “Patrimonio Ferroviario de Euskadi” (1990), “Material motor del Ferrocarril de Bilbao a San Sebastián” (2001) edo “75 aniversario del Funicular de la Reineta” (2001).

Industria Ondarearen eta Herri Lanaren Euskal Erakundeak zenbait **hitzaldi-, batzar-** eta **erakusketa-ziklo** sustatu du. Ekimen berriagoak izateagatik, segur aski, eta Autonomia Erkidegoaren alor osoa biltzeagatik eta ondarearen arazoa eguneratuta eskaintzeagatik, derrigor aipatu beharrekoak dira *Industria Ondarearen EAEko Biltzarra: Industria Ondarearen kudeaketa XXI. mendeko Europan* (Bilbo, 2001eko urria), eta *Fabrika Zaharrak, Erabilera Berriak* erakusketa (2001eko urrian Bizkaiko Foru Aldundiaren Artxibategian inauguratua). Hedapenerako ekimen bateratua izan zen, eta Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailaren laguntza izan zuen. Beste zenbait alorretan, arrakasta handiko dibulgazio-esperientziak antolatu dira, esate baterako, Industria Arkitekturako Nazioarteko Mintegiak Gasteizen antolatu ohi dira azken urteotan, zenbait erakunde pribaturen eta instituzio publikoen laguntzarekin.

Hezkuntzaren alorrean, gure inguruan gero eta interes handiagoa nabari da (handiegia ez bada ere) ondare-mota horrekiko. Aipatzekoa da, beste zenbait ekimenen artean, Euskadiko Arkeologia Eskola Praktikoak (Deustuko Unibertsitateak) 1989tik aurrera egindakoa; 5. mailan Industria Arkeologiako ikasgaia sartu baitzuen diplomaturan. Deustuko Unibertsitateko Aisia Saila, bestalde, gai hori ikastaroetan sartu eta hezkuntza-eskaintza osatzeko aukera ari da aztertzen.

Euskal Autonomia Erkidegoa ez dago **industria-gaien museoen** zerrendaren buruan: Araban dozena bat baino ez da kontatzen, izaera etnografikoa dute, batez ere, eta lan-mundua noizean behin baino ez dute aipatzen (*Zalduondoko museoa, Felix Murgaren Museo Etnografikoa, Kexaako museoa, Artziniegako museoa, etab.*). *Peñacerrada* eta *Mimbreroko* errotei edo *Palacio, Marqués del Riscal, Nuestra Señora de Remelluri* edo *Primicia* upelategi historikoei egiten zaie bisita. Ohiko buztingintzaren erakusgarri bizia den *Euskal Buztingintzaren Museoa* dago *Ollerietan* (Elosu), *Karta Museoa* Gasteizen eta zentral hidroelektrikoa Sobronen; horietan guztietan bisita eskatu egin behar da. Aparteko kasua da *Gasteizko Ur Depositua*; erakusketa-areto gisako erabilera publiko berria eman zaio. Aspaldidanik berreskuratu nahi izan da *Gesaltzako Gatzagen* haran zoragarria; hain zuzen ere, Arabako Foru Aldundia ari da horietan arreta berezia ipintzen.

Gipuzkoan aipatzekoak dira Azpeitiko *Trenbidearen Euskal Museoa*, *Agorregiko* burdin errotagunea, *Lenbur Lurralde Museoa* –Legazpin biltzen ditu, hain zuzen, *Mirandaolako Burdinola*, *San Migel Galdategia*, *Igeralde Errota* eta *Katabera-Udanako meatzaritza-esparrua*–,

Donostiako *Ontzi Museoa*, Tolosako *Gozotegiaren Xaxu Museoa*, Elgoibarko *Makina Erremintaren Museoaren Fundazioa*, Añorgako *Zementu Museoa* –pribatua– edo Zarauzko *Argazkigintzaren Euskal Museoa*. Gauzatzen ari dira Leintz Gatzagako *Gatzaren Museoaren* proiektua eta, are handiagoa den *Zeraingo Kultura Parkea*; azken horretan, Aizpeako meatzaritza-esparruaren paisaia eta material-hondarrak baliozkotu nahi dituzte, birgaitutako *Larraondoko Zerrategiarekin* batera –bisitaldiaren gauzarik erakargarrienetako bat–. Meatzaritzaren arloan, halaber, aipatzekoak dira Irungo *Irugurutxetako meategietan* edo Zarauzko *Molla-Arriko kostaldeko minerala zamatzeko tokian* gauzatzen ari diren jarduerak.

Bizkaian, bestalde, *Gallartako Meatzaritza Museoa* aipatu beharra dago –inauguratu berri da–, bai eta beste hauen proiektuak ere: *Itsasadarraren Itsas Museoarena* –Euskalduna ontziolaren dike zaharren gainekoa–, Muskizko *Pobaleko Museoarena* edo Balmasedako *La Encartada* ehungintzarena. Batzuk proiektuak dira, eta xedeak beste zenbait, esate baterako: *Elorrietako Ur Ponpagailuan* etorkizunean *Uraren Museoa* ipini nahi da; Bilboko *Harino Panaderaren* instalazio baliotsuetan, *La Arboleda* inguruan, *Meatzaritzaren Parke Tematiko* handi bat ipintzea pentsatu da; *Bizkaiko Labe Garaietako labe garaienean* –Sestaoko siderurgiagune historikoaren lekuko bakarra–; eta Karrantzako *Dolomitas del Norteko* instalazioak baliozkotzeko diseinatutako auditorioan eta harrera-zentroan.

Babes-politika eta -ekimenei dagokienez, **EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO INDUSTRIA-ONDAREAREN BEHIN BEHINEKO INBENTARIOA** (1990-1994) aipatu behar dugu, tresna nagusi gisa.

Euskal Autonomia Erkidegoa lehena izan da, estatu mailan, ezaugarri horietako inbentario zehatz eta monografiko bat egiten. Lan hori Industria Ondarearen eta Herri Lanaren Euskal Elkarteko diziplina arteko talde batek egin zuen 1990-1994 bitartean, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eskatuta. Guztira, 1.300 bat elementuren inbentarioa egin zuten. Inbentario horren azken helburua tresna eraginkor bilakatzea zen, administrazioak ondare aberats hori behar bezala kudeatu eta zain dezan.

Inbentarioan sartu beharreko elementuak hautatzeko irizpide nagusiak bi kontzepturen arabera ordenatu ziren: muga kronologikoa eta gaiaren arabeko muga.

Muga kronologiko hauek ezarri ziren: XIX. mendearen erdialdetik (1841 inguru) Gerra Zibileko urteetara arte. Lehen fase horretan, ez zen industriaurreko lan-munduko hondarren azterketarik egin; zenbait urte geroago egin zen, 1996-1997 bitartean¹.

«Ante quem» terminoari dagokionez, Gatazka Zibilean finkatu zen, horrek gutxieneko ikuspegi historikoa bermatuko zuela eta hortik aurrera eraikitako fabrika gehienek desagertzeko arriskurik ez zutela pentsatuta. Alabaina, data hori muga malgu gisa hartu zen; izan ere, muga horiek hauts daitezke eta hautsi behar ziren, ekoizpen-sistema zaharkitu baten edo ekoizpen-prozesuetatik behin betiko baztertutako sistema baten edozein hondar ere biltzeko. Hala, inbentarioan ipini ziren XX. mendeko hirurogeita hamarreko hamarkadan eraikitako minerala kaltzintzeko zenbait labe, gure garaiak erabat gainditutako minerala tratatzeko formulen adierazgarri zelako.

Gaiaren esparruan, inbentarioak unibertsala izan nahi zuen. Arkitekturako eta ingeniariartzako egiturak eta horiei lotutako makinak eta asmamen mekanikoak biltzea zuen helburu, bai eta beste zenbait elementu biltzea ere, hala nola: langileen etxebizitzak, zerbitzu publikoak eta bideetako eta komunikazio-azpiegiturak.

Ondorioz, ekoizpen-sektore guztiak izan ziren kontuan: bai gure herrialdean punta-puntakotzat jo izan diren jarduerak, bai ikusgarriak ez izan arren ekonomiaren egoeraren ikuspegia ematen zutenak. Hala ere, ez ziren bertako arkitektura-motak sortutako erreminta hutsak eta lan-jarduerak kontuan izan –etxeko lanak, etxabeetako artisauen edo gremioen tailerrak, etab.–. Elementu-mota horrek landa-lan ugari emango luke, zehazten zaila, eta aurkikuntzak ere ez ziren hainbestearainokoak izango; gainera, ebaluatzea zaila izango zen.

¹ *Euskadiko Burdinolen eta Erroten Inbentarioan* 400 elementu inguru ziren Bizkaikoak, ia 500 Gipuzkoakoak eta 250 inguru Arabakoak.

Datuak jasotzeko lan-tresnari dagokionez, dossier-eredua hautatu zen. Elementu bakoitzaren fitxa hainbat azpifitxaz osatuta zegoen: lehenak, IDENTIFIKAZIOkoak, kokapeneko ohiko atalak, kontserbazio-egoera, datu historikoak, eskuratutako dokumentazioa, gunearen deskribapena, etab. ditu. Fitxa hori diseinu bereziko beste batzuez osatzen zen, ARKITEKTURARI, INGENIARITZARI eta MAKINEI buruzkoak. Hartara, AHV, Beasaingo CAF, Legazpiko Patricio Echevarria eta antzeko industriagune handiak, besteak beste, elementu bakar baten gisan inbentariatu ziren (IDENTIFIKAZIO-fitxak), erregistro-zenbaki bakar batekin; baina zenbait fitxa izan zitzaizketen: eraikuntza-fitxak (ARKITEKTURA-fitxak), makina-fitxak (MAKINERIA-fitxak) eta ingeniari-tza-egituren fitxak (INGENIARITZA-fitxak). Erregistro horretan sartzeko modukoak ziren ezaugarri horietako instalazioak bezainbesteko fitxa-kopurua egin zen. Dossierra elementuen erreportaje grafiko sakon batekin osatzen zen: diapositibak, planoen fotokopiak, aspaldiko argazkien kopiak.

Zenbait urteko lanaren buruan, oso emaitza onak lortu ziren. Gainera, taldeek inbentariatutako instalazio bakoitzaren dokumentazioa biltzeko egindako ahalegin handia nabarmendu behar da. Izan ere, denbora asko behar izan zuten kontsulta bibliografikoak, ahozko inkestak eta, batez ere, datu interesgarriak eman zitzaizketen fondo publiko eta pribatuena –udaletako, probintzietako, enpresetako, familietako eta abarretako fitxategiak– ikerketa sistematikoa egiteko.

Euskal Autonomia Erkidego osoan, 1.227 industria-elementu edo -instalazio inbentariatu ziren. Horrela banatu ziren lurralde historikoetan:

EAEn GUZTIRA	1.227	% 100
ARABA	195	% 15,9
BIZKAIA	558	% 45,5
GIPUZKOA	474	% 38,6

–ARKITEKTURA INBENTARIATUAK–

EAEn GUZTIRA	2.241	% 100
ARABA	209	% 9,3
BIZKAIA	1.041	% 46
GIPUZKOA	989	% 41,1

-INGENIARITZA-ELEMENTU INBENTARIATUAK-

EAEEn GUZTIRA	882	% 100
ARABA	70	% 8
BIZKAIA	540	% 61
GIPUZKOA	271	% 30,7

-MAKINA INBENTARIATUAK-

EAEEn GUZTIRA	663	% 100
ARABA	94	% 14,1
BIZKAIA	345	% 52
GIPUZKOA	223	% 3,7

Lan hori ikerketa-modu garrantzitsua izan zen, horretan oinarrituta egin baitira, gerora, azterketa eta argitalpen ugari. Baina hedapen-ekimen horiek bezain garrantzitsua izan da gure Industria Ondarea osorik eta sakon ezagutzea; horrela, ondare horren barnean hierarkiak ezartzeko aukera dago, bai eta elementu bakoitzari dagokion balioa emateko aukera ere, betiere, behar bezala egiaztatuta.

Inbentario horretan sartutako elementu ugari, gure historiarik hurbilenaren lekuko baliotsuak direnez, kultura-ondasun gisa hartzea merezi zuten, etorkizuneko belaunaldiei zainduta eta behar bezala transmititzeko. Baina, finean, hondar material ugari horrek ez du beti lortzen merezi duen aintzatespena eta, askotan, etorkizuneko zenbait erronkekin bateraezina da; hartara, arazoak izan zituzten zenbat, zeintzuk eta nola kontserbatu behar ziren zehazteko.

Hori dela eta, inbentarioaren ondoren, hierarkia egiaztatu hori ezartzea izan zen; aurrez, hainbat balorazio-irizpide definitu ziren, objektiboki, hainbat industria-elementu legez babestu ahal izateko. Azken batez, "uko egin ezin zaienen" zerrenda bat egin zen.

1996an egin zen, hain zuzen. Horretarako, zenbait bilera eta lan-saio egin zituzten Industria Ondarearen Euskal Erakundeko kide eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren Ondare Teknikari batzuek **SEKTOREKO LURRALDEKO PLANA** egiteko, Lurralde Antolamenduko Arauen arabera.

Zortzi hilean jardun ondoren –23 saio inguru, lehenik, aurrez baloratzeko irizpideak ezarri ziren eta, horietan oinarrituta, Komunitatearen Industria Ondarearen ikuspegi sakona egin zen, lurralde bakoitzean sektorez sektore, eraikuntza-mota guztiak berrikusiz. Elementuen lehen hautaketa bat egin ondoren –aurrez ezarritako irizpideen arabera, interesgarrienak–, hurrengo bileretan Planaren edukien gidoiaren eta babesteko proposatutako elementu eta instalazio bakoitzaren berrikuspen zehatzaren inguruan eztabaidatu zen, behin betiko dokumentua lortu arte (1996aren amaieran).

Nolanahi ere, hautaketa-lanek oinarri garrantzitsu bat izan zuten: “ordezkaritza proportzionala”. Alegia, ondarearen balio bereziengatik aintzatetsitako elementu-multzoa Herrialdearen industria-historiaren lekuko zehatza izatea nahi da, alegia, hautaketa-prozesuaren ondoren geografiaren eta sektoreen aniztasuna behar bezala adieraziko duen lagina izatea, bai eta arkitektura-mota ugarien eta fabrikak eraikitzekeo sistemen, eta ekoizpen-prozesuen eta teknologia estadioen ugaritasun aberatsaren adierazgarri ere.

Ondarea baloratzeko irizpideei dagokienez, azkenean, hauek ezarri ziren:

1. Balio historikoa: horren barnean, instalazioaren antzintasuna, gertaera historikoaren izaera posiblea, industria-garapeneko prozesuan lagundu izana, elementuari dagokion industria-sektorearen garrantzia ekonomikoa eta laborala, edo horren barnean izan zuen papera.
2. Balio artistiko eta arkitektonikoa: kontrako iritziak eta, halaber, osagarriak izan dira kontuan: originaltasuna edo ordezkartza tipologikoa, eraikuntza-tekniken eta -materialen originaltasuna edo ordezkartza, egituraren estetika-balioaz, elementuaren egileaz edo gertaera arkitektonikoaren izaeraz gain. Berezko edertasuna, industria-instalazio batzuen kalitate arkitektoniko objektiboa, beraz, beste edozein arkitekturaren antzeko irizpideekin neurtu behar dira. Askotan, edertasun horrek estalitako espazioaren tamaina handiarekin, eraikuntza-kontuak ebazteko moduarekin, materialen erabilera zuzenarekin zerikusi handia du.
3. Gunearen balioa: jatorrizko ekipamendurik ez duen edukiontzia edo testuingurutik kanpo dagoen makina onartu beharrean –museoan ikusteko tresna izan ez dadin–, lehentasuna

eman zitzaien arkitektura eta instalazio mekanikoak gorde zituzten fabrikei. Printzipio hori bera aplikatu zitzaien inguruan kolonia bat sortu zutenei, horietan, industriako kontuak etxebizitza edota asistentziaguneeekin konbinatu baitziren.

4. Espazio- edo integrazio-balioa: industria-instalazioa ondare-balio bereziko multzo handiagoen zati denean. Ezaugarrien araberako elkarrekin era daitezke: ekoizpen-izaerakoak (adibidez, ibai batean zehar zenbait zentral hidroelektrikok kultura-ibilbide bat osa dezakete), etxebizitza-ekoizpena izaerakoak (adibidez, fabrika eta industria-kolonia), paisaia-ingurumena izaerakoak edo industria-inguruneari berariaz ez xedatutako ondare-multzoak.
5. Balio ikonografikoa: Industria Ondarearen elementuek duten balio sinbolikoa. Edo, bestela esanda, errealitate fisiko eta historiko zabalagoak, edota garai bateko industria-paisaiak gogorarazteko, aditzera emateko gaitasuna. Tximinietako, garabietako edo labeetako gainaldeak, besteak beste, funtzio hori betetzen duten elementuak dira.
6. Kontserbazio-egoera: beste edozein ondaretan baino areago, industria-ondarean garrantzitsua da funtzionatzea edo erabili ahal izatea. Kontserbazio-egoera irizpide garrantzitsua da, baina industria-eraikuntzen kasuan nahasmenduak sortzen dira, batzuetan. Askotan, industria-aurri gisa kalifikatzen dira kontserbazio-akats larriak dituzten instalazioak, industria horiek gauzatutako jarduerak gainbehera egin dutelako baino ez; izan ere, industria horien funtzioa agortzean, industriaren beraren existentzia artifizialki luzatzeko beharrik ez dagoela sentitzeko arriskua dago. Franco Borsi irakasleak inoiz azaldu duenez, ez dira berez arkitektura-aurri gisa onartzen; aitzitik, bizitza-zikloa amaituta, desagertzeko zorian dauden makina hautsizat hartzen dira.
7. Erabiltzeko aukerak: oro har, tamaina handiko eta egitura orokorreko eraikuntzetan nabarmentzen da, erabilera ugari emateko aukera ematen baitute. Erabilera-balio hori moralitate ekonomikoko eta hiri-moralitateko nozioekin, baliabideen arazoizko erabilerarekin lotuta dago. Kultura-ondarearen beste alderdi batzuetan balio erantsia baino ez bada ere, industria-ondarean, gehienetan, babes-irizpide erabakigarria da.

8. Ekoizpen-prozesuen adierazgarritasuna: makinaren eta instalazio mekanikoen hautaketa eta zaintzaren berri eman behar duten irizpideak dira. Makinak eta instalazio mekanikoak, batez ere, aurrerapen teknologikoen ondorioz daude arriskuan, eta, batzuetan, arkitektura aipagarriak ez duten industrien hondar garrantzitsuenak izan ohi dira. Adibidez: Bidaniako portzelana-fabrika, Bergarako Eguren tailerra, Hernaniko larrua ontzeko tailerrak, etab. Laburbilduz, ekoizpen-prozesuak balorazioan aplikatzeko irizpideak hauek dira: kronologikoa –zenbat eta zaharragoa izan, adierazgarriagoa da–; prozesu bat osoki kontserbatzea –makina zenbat eta integratuago egon ekoizpen-prozesuan, orduan eta adierazgarriagoa da–; gertaera teknologikoa izatea; patente lokalak –kolonizazio teknologiko handia izan duen iragan industrialaren aurrean, tokiko garapen teknologikoaren erakusle diren ale urriak berreskuratzeko ahalegina–; elementu urriak ugariak baino adierazgarriago dira; fabrikazio-prozesuan makinaren egitekoa eta energia eragilea.

Euskal Kultura Ondarearen 7/90 Legeak ezartzen dituen babes-mailen arabera, interes berezia zutelako hautatutako industria-instalazioak honetarako proposatu ziren:

- a) Kultura Ondasun Kalifikatuen Erregistroa
- b) Euskal Kultura Ondarearen Inbentario Orokorra

Gainera, beste babes-maila bat onartu zen –hirugarrena–, “gomendio” gisa; horretan, Udaleko Hirigintza Planak zaindu beharreko industria-elementu guztiak sartu ziren.

Inbentarioan bildutako 1.227 elementuetatik 156ri erabateko legezko babesa ematea onartu zen –erregistro osoaren % 13–.

INDUSTRIA-ONDAREA		GARRAIOA ETA HERRI-LANAK	
KALIFIKATU	INBENTARIATU	KALIFIKATU	INBENTARIATU
31	66	20	39
97		59	

Alabaina, zazpi urte geroago, Europako industria- eta portu-tradizioko eskualde gehienetan hiri-garapen berriak gauzatu –hazkundeak hala eskatuta– eta industrializazioaren eraikuntza historiko onenak zaindu eta berreskuratzearekin bateragarri izan arren, ikus dezakegu gure esparruan filosofia horrekin bat ez datozen zenbait erabaki hartu direla.

EAEko hiriburuetan, Bilbon batez ere, eta hiriburu-esparruetan, ez da industria-, portu- eta merkataritza-iraganetik jasotako ondarea batere errespetatu. Bistakoa da hiriak organismo biziak direla eta ezin dela horien garapena eta hazkundera mugatu, ez eta hiritarren ongizatea ere, lehendik zegoen arkitektura akritikoki eta orokorrean errespetatzeagatik. Hala ere, urte gutxian, ondare-balio handiko eta industria-hiriaren memoria historikoa gordetzeko balio zuten eraikuntza ugari galdu dugu.

Bilbon, soilik, hauek eraitsi dira: Mirafloresko Ur Depositua eta horren zerbitzu-eraikuntza, Olabeagako eta Zorrotzako minerala zamatzeko tokiak, Salbeko eta iparraldeko (Basurto) garagardo-fabrikak, Euskalduna ponpa-etxeen zatirik handiena, portuko biltegi historiko asko, Tapia xaboi-fabrika, Kadagua gaineko Alzolako zubietako bat, Pontongo errota, Abandoibarrako Zura Konpainiaren fabrika, Lezamako tren-geltokiaren zati bat, dorre piezometrikoa, lur azpiko deposituetako batzuk, Elorrietako Estazio Ponpatzailearen kanpoko lorategia (makina asko espoliatu ziren, segur aski, zaintzarik ez zutelako), etab. Gainera, Abandoko geltokia ere arriskuan dago (Stirling-en iritziaren kontra). Harino Panaderaren eraikin txiki bat gordetzeko aukera izan da, baina oraindik ez dakigu eraikinak berak zein bertan dauden makina baliotsuek zein jarduera izango duten. Hala ere, zoriontzekoa da azkenaldian udalean hartzen ari diren erabakiak, Elorrietako instalazio baliotsuak –Kultura Sailak babestutakoak– etorkizunean Uraren Museoaren egoitza gisa baliozkotuko baititu.

4.- Helburuei, jarduera-ildo posibleei eta proiektuei buruzko hausnarketa

4.1 Teknikaren eta Industriaren Euskal Museoa

Teknikaren eta Industriaren Euskal Museoa sortzea NAHITAEZKOA da industria- eta teknologia-garapenaren eta prozesu horrek duela mende eta erdi baino gehiagotik aurrera eragin dituen aldaketa ekonomiko eta soziokulturalen gun e pribilegiatua izan den herrialde honetan.

Museoaren proiektua 1981ean sortu zen Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailean, European Industria Ondarea birbalorizatzeko zegoen joera gure ingurunera iritsi zenean, eta lan-jarduerako hondar fisiko kontaezinak balioztatzen hasi zirenean; hortik aurrera, gizartean, balio berria hartu zuten: kultura-ondarearen ezinbesteko partaide izatea.

Hausnarketa teoriko hori, gainera, Euskal Autonomia Erkidegoan 80ko hamarkadan zegoen egoera ekonomiko txarrarekin batera iritsi zen: industria-krisia, fabrika zaharrak itxi eta eraitsi ziren, makina eta gailuak isilean desagertu ziren, 1983ko uholdeak, etab. Horien guztien ondorioz, ondare hori oso egoera txar eta ahulean zegoen, eta premiazko babes-neurriak hartu behar izan ziren.

Hartara, Museoak hartu zuen herentzia garrantzitsu hori zaintzeko ardura, bai eta gure iraganeko lekuko material gisa duen interesa zabaltzeko ardura ere –interes pedagogiko handia baitu—. Gero, garatzean, zientziaren, teknikaren eta industriaren bilakaerarekin lotutako ikerketa-zentro iraunkor bihurtu zen, eta, halaber, zentzu zabal batean, horiekin lotuta dauden prozesu historiko guztien adierazgarri.

Museoak lehentasuneko bi oinarri baldintzatzaile izango lituzke: lehena, bilduma, alegia, herrialdeko industria- eta teknologia-espekto zabala bere osotasunean gordeko duten elementuak biltzea, eta horien garapen-espektoak irudikatzea; eta bigarrena, kokapena.

Bildumari dagokionez, Museoa zenbait erakunde eta banakok azken hogeitun urteetan egindako ahalegin ekonomikoen eta pertsonalaren ondorioa da. Tresna, makina eta instalazio asko anonimatutik ateratzeko eta ez deuseztatzeko eginkizun nekezaren ondorioz, dagoeneko bildutako bilduma oso garrantzitsua da. Izan ere, azken hamarkadetan, ondare historiko-teknologiko horretan atzerabuelarik gabeko galerak izan ditugu, bere balioari dagokionez gizartea ez delako ados jarri. Hala ere, Bilboko Merkataritza Ganberaren eta Industria Ingeniarren Elkargoaren lanarengatik, lehenik, eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren eskutik, gero, katalogatutako bilduma baliotsua biltzea lortu da –1.500 bat objektu higiezin–; horiekin, hasieratik Museoko atal asko hornituko lirateke.

Edukia dagoeneko badaukagun pasibo bat bada ere, arrakasta bermatuta duen arrazoizko proiektu bat egiteko nagusi izan behar duen bigarren balioa da edukitzailea. Alderdi hori kontuan hartuta, kokapenaren planteamendua saihestezina da. Lutxanako Orconera pabiloi zaharren aukera, azkenean, bertan behera geratu da. Museoaren proiektuaren hasiera izan zen, urte batzuetan, pixkanaka sortzen ari zen bildumaren biltegia. Lutxana inguru horretan ez zen hirigintza-berrikuntza handirik egin eta, ondorioz, bistan geratu ziren azpiegitura-gabeziak eta berriz martxan jartzeko arazoak, bai eta tamaina txikia ere –2.500 m² baino ez ditu—.

Alderdi horri buruzko hausnarketaren ondorioz, beste zenbait biltegi izan ziren kontuan esparru horretan; Bilboko Itsasadarrean dauden fabrika enblematiko batzuk –leku zabalak dira, erabilera askokoak eta utzita daude– egokiak izan daitezke Teknikaren eta Industriaren Euskal Museoaren proiektuarentzako egoitzatarako. Balio historiko handiko eta zalantzarik gabe ondare higiezinak baliozkotzeko aukera eman zuen proiektu horrek. Besteak beste, Zorrotzako Tailerren nabe ederrak presta daitezke horretarako –Kadagua eta Ibaizabal ibaiak bateratzen diren lekuan daude, iragan industrialak gogora ekartzen duen lekuan–, bai eta Molinos Vascos enpresaren eraikuntza monumentala –aurrekoaren alboan dago– edo Ercross sozietatearen pabiloi izugarriak ere –zurezko egitura dute eta “katedrala” izenarekin ezagutzen dira–.

Kataluniako ereduari jarraiki –gure ingurunearentzat aproposa dela uste dugu–, Museoaren egoitza nagusia sortzeko bidean edo etorkizunean sortuko diren museo sateliteen sare baten bidez –sektorekakoa– osatuko da: Agorregi eta Pobal, burdinaren eta erroten mundua islatzeko, Gallartako Meatzaritza Museoa, La Encartada Ehungintza Museoa, Donostiako Ontzi Museoa, Bilboko Itsasadarraren Itsas Museoa, Añorgako Zementu Museoa, La Arboledan egingo den Meatzaritzaren Parke Tematikoa, Zeraingo Aizpea Parkea, Legazpiko Lenbur proiektua, Gesaltzako gatzagak, Tolosako Gozogintza Museoa, Azpeitiko Trebidearen Euskal Museoa, etab. Horrekin guztiarekin EAEn garapen ekonomikoarekin eta fabrikekin gauzatutako prozesuaren eta aldaketa teknologikoaren ondorio izan den kultura-ondare higigarria adieraziko litzateke.

Hori dela eta, Kataluniako Zientziaren eta Teknikaren Museoaren antolamendua oso ongi egokitzen zaio gure inguruneari: museo zentralak izaera teknikoko beste zenbait museo biltzen ditu; horietako bakoitza berezia da, EAEn esparruan alor jakin baten ingurukoa edo industrializazioaren ingurukoa da, eta alderdi sozialak zein kulturalak izango ditu kontuan. Sistemako museoek Euskal Autonomia Erkidegoaren industrializazioa azalduko lukete, gure industria-ondarea osatzen duten hondarren bildumen bidez edota herrialdeko ekoizpen-jarduerak museoan adierazita.

Museoaren edukia kokatuta dagoen eremu geografikoan, alegia, Euskal Autonomia Erkidegoan, zentratu beharko litzateke, bai eta komunitate honek industriaren, eta industriaren garapenari aplikatutako zientziaren eta teknologiaren historiari egin dion ekarpenean ere, betiere, ahaztu gabe derrigor unibertsala izan behar duela –proiektu museografiko guztiek hala izan behar baitute–. Museoaren organigrama, hasiera batean, atal hauen arabera izango litzateke: energia, siderometalurgia, makina-erreminta, arte grafikoak, komunikazioa eta garraioa; eta medikuntzarekin eta zientziarekin osatuko lirateke edukiak, tresna zientifiko eta didaktikoei gordetako atal berezi batekin.

4.2 EAEko Industria Ondaretik galdu ezin diren elementuentzako legezko babesak

Industria ondarea oso ahula denez, zaintza-politika programatu bat behar da, arriskuan dauden interes publikoko elementuen legezko babesak erabakitasunez eta azkar ezartzeko. Instalazio horien defentsak, hartara, industria-ondarea konpromisotzat hartzearen ondorio izan behar du.

Gaur egun, dagoeneko badakigu zein elementu diren EAEko Kultura Ondarearen Inbentarioan sartu beharreko Ondasun Kulturaltzat hartzekoak. 90eko hamarkadako lehen urteetan erregistratutako 1.300 instalaziotatik, 150 inguruk izan dezakete sailkapen hori (ikus Industria Ondarearen arloko Lurraldeko Plan Sektorialaren ondorioei dagozkien atala). Alabaina, gaur egun arte, oso gutxi izan dute legezko babesik, nahiz eta 70eko hamarkadaren amaieratik aurrera espedienteak irekitzea eskatzen ari diren eta denbora asko pasatzen den ebazpena eman arte, honekin batera doan koadroko datuek erakusten dutenez (ikus I. eranskina).

Iragana eta etorkizuneko erronkak, aldaketa teknologiko, ekonomiko eta hirigintzako aldaketa logikoak bat egitea posible da eta hori lortu nahi da; horretarako, gure industriaren iraganaren adierazgarri berezienak gorde behar ditugu. Baina errealitatea konplexua da eta urteen joan-etorriak erakutsi digu ezen, kontserbazioko politika orokorrak ezarri behar badira ere, berriazko irtenbide eta konpromisoak behar dituzten kasuak badaudela.

Ondare horretan, hain zuzen ere, besteetan baino areago planteatzen da berriz erabiltzea, kontserbatu denaren berme gisa. Eta hori oztopoz betetako bidea da. Balio arkitektonikoak dituzten industria-monumentuek ez dute arazorik ematen; alegia, ez ginen Donostiako Tabacalerako eraikin ederraren etorkizunaren beldur. Jendearen iritziz, eraikin hori mantendu egin behar baita. Halaber, ez genuen kezkarik Muñoz Mendizabalen Tailerrak izan zituen eraikin berritzailearekin –jendartean Deustuko Tigrea gisa ezaguna–, Bilbo industrial

berriaren ikur gisa berreskuratu baita. Beste industria-instalazio batzuek sortzen dituzte arazoak. Gehienek.

Louis Bergeronen hausnarketa gurera ekarrita, gogoratuko dugu, batzuetan, berriz erabiltzeko aproposak diren abandonatutako industria-eraikinen eskaintza handiegia izan daiteke, populazio baten tamainari, beharrei edota baliabideei dagokienez. Itxura batean, badirudi erraza dela hiriaren eremu aktibo batean dauden tailer, merkatu, biltegi edo fabrika polit txikiei erabilera berria ematea. Baina, sarritan, arazoa da monumentu bakanak ez diren baizik eta monumentu-taldea osatzen duten industria-eraikin handiak berriz erabiltzea. Eta, azkenik, erronka handia da industriagune zaharrek bizirik iraungo dutela bermatzea; Bilboko Itsasadarrekoak dira horren paradigma bikaina. Beraz, zer gertatuko da indar ikonografiko erraldoi eta indartsu hori duen paisaiarekin edo gunearekin, gaur egun gertatzen den bezalaxe, Ibaizabaleko behe-ibilguaren etorkizuna, bere indartze sozioekonomikoa, ekipamendu-beharrak, hirigintza-aukerak, etab. aztertzen direnean? Alegia, non eta nola geratuko da Industria Ondarea zerbitzu-hiri baten proiektuan, erriberako proiektua hiriaren onurarako eta jardueren giltzarri gisa berreskuratu nahi duenean?

4.3 Industria-fitxategiak biltzeko plan orokorra

Industria Ondarea zaintzea administrazioaren jarduera garrantzitsuenetako bat da. Eta horren barnean, industria-ekoizpenetik zuzenean sortutako dokumentu-fondoak babestea, hain zuzen ere.

Normala denez, arazoak sortzen ditu beti dokumentu-fondo pribatuak jasotzea, eta industriaren kasuan, erronka horrek garrantzia berezia du. Bere-bereak dituen arazoan ondorioz, berehala hautatu behar dira zenbait hautaketa-irizpide, eta Industria Fitxategiak Biltzeko Plan Orokorra diseinatu behar da, aurrez dokumentazio-fondo horien erregistroa eginda. Ez da ekoizpen-jarduera bertan behera geratu zain egon behar, zeren eta, agian, negozioarekin sortutako dokumentazioa ez dago ondo gordeta. Salbuespenetan izan ezik, praktikak erakutsi digu ezen, dokumentu-ondare hori gordeko dela bermatzeko, egoera horiei aurre egin behar zaiela.

Bizi dugun egoera sozioekonomikoan, fondo horiek berehala desagertzeko arriskua dute –beste edozeinek baino gehiago–. Bi alderdi izan behar dira, batez ere, kontuan: batetik, enpresetan baliabideak optimizatzea gero eta garestiagoa da, eta horren ondorioz, enpresa handitzean emaitza gutxiko edota emaitzarik gabeko arloak erabili ohi dira; hortaz, fitxategiak eta fitxategiek behar duten lekua, askotan sistematikoki deuseztatu egiten dira. Bigarren faktorea, egoera ekonomikotik zuzenean sortutakoa da. Krisialdiko urteen ondoren enpresek porrot egin dutenez, fitxategi askori kendu zaie ekoizpen-euskarria. Eta hori garrantzitsua da

gure industria-sarearen azpiegiturari zuzenean eragiten baitio, alegia, gure herrialdean tradizio handiena duten eta gizartean oihartzun handiena duten enpresei. Hala, industriarik zaharretako eta historikoki garrantzitsuenetako batzuek arazoak izan zituzten aurreko mendeko 80ko hamarkadaren hasieratik aurrera, eta, horren ondorioz, behin-behineko neurriak hartu behar izan genituen –batzuetan ezin eutsizkoak ziren–, zegozkien dokumentazio-fondo garrantzitsuei dagokienez. Azken faktoreak –puntuale– areagotu egin zuen aipatutako bi aldagaiek eragiten zuten egoera larria. 1983ko uholdeek fitxategi interesgarri ugari urez bete zituzten eta enpresa askotan eragindako kalteek enpresak itxiarazi zituzten; baina ez hori bakarrik zeren eta, kasu askotan, berriro hutsetik hasteko gogoia etorri zen, eta ondorioz, instalazioen garbiketa-, ordena- eta antolamendu-prozesuetan fitxategiak deuseztatu egin ziren.

Normala denez, gertatutakoak kontuan hartuta eta etorkizunean dokumentazio-ondarea honda zitekeela kontuan izanik, administrazioak erantzun eraginkorra planteatu behar izan zuen.

4.4 Industria Ondarearen Inbentarioa zabaltzea

Industria Ondarearen Inbentarioan XX. mendeko 40ko hamarkada baino lehenagoko hondarrak bildu ziren, salbuespenak salbuespen, berrikuntza teknologikoa eta hirigintzak arriskuan jarriko zituztela ikusten baitzen. Alabaina, gaur egun bistakoa da arrisku larrian daudela prozesu horren ondorengoak diren gizakiaren ekoizpen-jardueren elementu adierazgarri asko ere. Azken urteotan ikusi dugu hain zaharrak ez ziren eta duela gutxi arriskuan ez zeudela uste genuen zenbait elementu desagerrarazi direla garapen teknologiko azkarraren ondorioz –Euskal Autonomia Erkidegoan, batez ere– eta lurzoru tradizionalak eta industria-sareak izan dituen aldaketan handien ondorioz.

EAEko Industria Ondarea ezagutzeko, hedatzeko eta zaintzeko politika egokia egiteko, 90eko hamarkadako inbentarioan egindako lana osatu beharko litzateke; lehen erregistroa egiteko ezarritako dataren ondorengo eta egiaztatutako interesa duten instalazioak erregistratuz zabaldu beharko litzateke.

4.5 Industria Ondarearen hedapena eta baliozkotzea sustatzea

4.5.1 Euskal Autonomia Erkidego osoaren sintesi-liburua publikatzea

Gai honi buruzko ekoizpen bibliografiko nahi handiaz gain, beharrezkoa da Euskal Autonomia Erkidegoko Industria Ondarea, oro har, aztertuko eta hedatuko duen **sintesi-liburua** egitea. Argitalpen horrek hiru lurralde historikoen ikuspegi orokorra eskainiko luke eta azterketa hauek eguneratuko: *Bizkaiko Industria Arkeologia*, *Gipuzkoako Industria Arkeologia* eta *Arabako Industria Arkeologia* –Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Deustuko Unibertsitateak 1988-1992 bitartean elkarrekin argitaratutako lan aitzindariak–. Bizkaiari dagokion liburua berrikustea eta berriz argitaratzea interesgarria litzateke; 1988an argitaratu eta denbora gutxira agortu zen eta, oraindik ere, liburu horren eskaera handia da.

Sintesi-liburu horrek gure Industria Ondareak gaur egun duen egoera hedatzen lagunduko luke, eta azken bi hamarkadetan kultura-ondarearen esparruan gertatutako aldaketak gainbegiratu litzateke; halaber, ikuspegi orokorra eta hutsune nabarmen bat estaliko luke. Proposatutako argitalpena hedapen-tresna osoa eta bateratua litzateke.

4.5.2 Euskal Autonomia Erkidegoko Industria Ondarearen Gida Internet bidez

Proposatzen dugun Internet bidezko Eusko Autonomia Erkidegoaren gida ere aukerakontu bat besterik ez da: ohiko hedapen-tresnek dagoeneko garatu duten lana osatuko luke eta helburu garrantzitsu bat beteko luke; izan ere, gaur egun ez dago Euskal Autonomia Erkidego osoa biltzen duen dokumentu sistematiko, ordenatu eta orokorrik sarean.

Oraindik ere, azken urteotan hazkundera handia izan arren, gaur egun, zaila eta aspergarria da sarean horiei buruzko informazioa bilatzea. Gaur egun udalderiei dagozkien orrietatik eskualde edo partzuergoei dagozkien beste orrialde orokorragoetara sar daiteke. Halaber, horien sustatzaileek hedapen zabala eskaintzen dute: instituzioetatik hasita –udalak, liburutegiak, turismo-bulegoak– partikularretara –kultura eta aisialdirako erakundeak, zerbitzari pribatuak, etab.–; eta horrek arazo handia eragiten du eduki-aldeei dagokienez –batzuetan ez dira zehatzak–, gauzak azaltzeko irizpide-ugaritasunari dagokionez, etab.

Ondorioz, desordena nabaria da, eta gure Industria Ondarea ezagutzeko gogoia murriztu egiten da, eremu horretan, ezin baita erabili tresna ordenatu eta hierarkizatu bat kontsultarako.

Finean, Bizkaiko, Arabako eta Gipuzkoako Industria Ondareari dagokion informazioa izango duen dokumentua sortzeko proposamena egiten dugu, irizpide komunak izango dituen, ongi egituratuta egongo dena eta kontsultatzea erraza izango dena, informazio-zehaztasunik galdu gabe.

4.5.3 Industria-monumentuak seinaleztatzeko programa

Industria Ondarearen elementuak seinaleztatzeko programak monumentu horien hedapen-kanalak indartuko lituzke, eta monumentua behar bezala baloratzen, gozaten eta zaintzen lagunduko luke. Informazio-panelek ondarea zuzenean ezagutzen lagunduko lukete eta industriagune zaharrei turismo-produktu gisako balioa emango liekete –alegia, ondare historikoaren sustapenaren emaitza gisa azalduko lirateke eta kultura-ibilbideetan sartzeko aukera emango lukete—. Azkenik, Industria Ondarea birbalorizatzeko edozein proposamen merkaturatzeko baliabide turistiko bilaka daiteke, eta ekonomia dibertsifikatu eta aberastasuna zein enplegua sortuko lituzke.

4.5.4 Industriaren Historiari eta Ondareari buruzko material didaktikoak egitea sustatzea

“Irakaskuntza ertainetan ez dira gehiegi erabiltzen pedagogia aktiboak; hala ere, egunetik egunera handitzen da ikasleengan bilatzeko, behatzeko eta parte hartzeko jarrerak eragiten dituzten metodologiak erabiltzen dituztenen kopurua” (CARCAMO Y HERNÁNDEZ, 1988)

Industria Ondarea lehen ordenako hezkuntza-baliabide ari da bilakatzen; eta industrializazioaren inguruan, zientziaren eta teknikaren, arkeologiaren, arkitekturaren, antropologiaren eta abarren historiaren eremuaren hainbat pertzepzio ikuspegi bakarrean bildu nahi ditu.

Gazteen artean gai horri buruzko dibulgazio-kanpainak sustatzearen eta aztertzearen onurak honela neur daitezke: lehenik, zientziarekin, teknikarekin eta industrializazioaren historiarekin lotutako gaietan motibazio handiagoarekin –bai herrikoekin, bai eskualdekoekin–, alegia, “hurbileko kultura materialarekin”; bigarrenik, ikertutako helburuetan parte hartzearekin eta sentsibilitatearekin; eta, azkenik, lan-munduaren, aurrerapen teknikoaren eta garai bateko

bizimoduaren –jada nahitaez desagertuko dena– lekuko adierazgarri gisa duten interesaren inguruko kontzientziazioarekin.

4.6 Industria Ondarearen dinamizatzailerik gisa babestea eta mezenasgoa.

2002ko urrian egindako Babesteari eta Mezenasgoari buruzko nazioarteko mintegiaren helburuak gurerara ekarrita, uste dugu ez dela aldatu behar gobernuak kulturaren egiten duen inbertsioa, ez eta interes orokorreko zerbitzuan egiten duen behar-beharrezko lana ere, eta haren ordean, sektore pribatuko baliabideak erabili. Gizarte zibilaren baliabideak logikak eta lehentasunak errespetatuz handitu behar dira. Izan beharreko koordinazioa ez da inposatu behar, aitzitik, elkarrizketaren eta ahalegin bateratuen bidez partekatu behar da.

Babeslearen eta mezenasgoaren garapena ez da aldeko sustapen fiskalen arabera soilik, horiek oinarritzeko izan arren; aitzitik, esparru arautzailean antolamendu-tresnak eta kontraprestazioen definizio hobea ere izan behar dira kontuan.

Ilido horretatik –uste dugu sakondu beharrekoa dela–, Euskal Autonomia Erkidegoan 12/1994 Legea dugu –ekainaren 17koa, Euskal Autonomia Erkidegoaren Fundazioei buruzkoa–; lege horrek erraztu egiten du interes orokorreko zerbitzuko erakunde horiek sortzea, bai eta parte-hartze pribatuarentzako sustapen fiskalarentzako arauak ezartzea ere –erakunde pribatuek, era berean, interes orokorreko jardueretan ahalegin partikularrak eraginkortasunez bideratzen laguntzen dute–.

Enpresek duten gizarte-ardurari buruzko kontzientziazioa areagotu egin behar da, aberastasuna eta enplegua sortzeaz haratago. Era berean, gizarteak gehiago hartu beharko lituzke aintzat mezenasgo-ekintzak, aurrerantzean ere enpresa horiekiko laguntza ziurtatzeko.

1. ERANSKINA. Euskal Autonomia Erkidegoko Industria Ondarearen elementuentzat espedienteak irekitzea eskatzea

ELEMENTUA	ESKERA- -DATA	ESKATZAILEA
Bilboko Udal Alondegia. (1)	1976	COAVN
Burdinazko Kaia (Portugalete)	1979 1995	Kultura Ministerioa Bizkaiko Foru Aldundia
Portugaleteko merkatua. (2)	1979	Kultura Ministerioa
Castañosko azoka.	1980	
Santimamiko azoka.	1980	
Zur Konpainia (Bilbo). (3)	1980 1982	Ondare Batzordea Arte Ederren Aholkularia
Desinfekzio-zentroa. (Bilbo)	1980	
Urizar Dorreko etxebizitzak. (Bilbo)	1980	
Taller Bonilla etxea (Gasteiz). (4)	1981	Kontseilu Aholkularia
Pontongo errota (Bilbo). (5)	1982 1996	Arte Ederren Aholkularia
La Arboleda (Trapagaran).(6)	1983	Trapagarango udala
Gandariasko minerala zamatzeko lekua (Bilbao).(7)	1983 1994	Arte Ederren Aholkularia Industria Ondare eta Herri Laneko Euskal Elkarte
Orkonerako minerala zamatzeko lekua (Barakaldo)	1983 1994 1995	Arte Ederren Aholkularia Industria Ondare eta Herri Laneko Euskal Elkarte Bizkaiko Foru Aldundia
Franco-Belga enpresako minerala zamatzeko lekua (Barakaldo)	1983	Arte Ederren Aholkularia
Gesaltzako Gatzagak. (8)	1984	
Bizkaiko zubia (9)	1984	
Olleriasko labea (Elosu). (10)	1989	Legutioko udala
Abantoko kaltzinazio-labeak	1989 1992	Teknikaren museoa
Jaizkibelgo draga. (11)	1991	Industria Ondare eta Herri Laneko Euskal Elkarte
Azucarera Alavesa. (12)	1991	Kontseilu Aholkularia
Goya gasolindegia. (13)	1991	Kontseilu Aholkularia

Leintz Gatzagako gatzagak. (14)	1991	Kontseilu Aholkularia
La Encartada txapel-fabrika. (15)	1991	Teknikaren museoa
ELEMENTUA	ESKERA- -DATA	ESKATZAILEA
Elorrietako ur-ponpagailua. (16)	1992 1992 1992	Kontseilu Aholkularia Bilboko Udala Teknikaren museoa
Ercross-en pabilioia. (17)	1992	Bizkaiko Foru Aldundia
Donostiako udaleko gas-fabrika (18)	1993 1994	Industria Ondare eta Herri Laneko Euskal Elkarte Gipuzkoako Foru Aldundia
Palacio upelategiak	1993	Palacio upelategiak
Santandergo geltokia (Bilbo)	1993	
Oreretako Fanderia	1994	
Euskaldunako ponpa-etxea	1994	Industria Ondare eta Herri Laneko Euskal Elkarte
Hiri- eta industria-zabalkundeak (Gasteiz)	1994	Arabako Foru Aldundia
Uliako akueduktua	1994	Gipuzkoako Foru Aldundia
Notizitxarko meategiak	1994	Gipuzkoako Foru Aldundia
Basoerdiko tunela	1994	Gipuzkoako Foru Aldundia
Lasumene karobia	1994	Gipuzkoako Foru Aldundia
Igeldoko faroa	1994	Gipuzkoako Foru Aldundia
Zarauzko azoka. (19)	1994	
Cervecera del Norte. (20)	1995	Bizkaiko Foru Aldundia
AHVko koke-labeak (21)	1995	Industria Ondare eta Herri Laneko Euskal Elkarte
M. Angeles labe garaia eta 1 eta 2 labeak, zamatzeko garabiak, Ilgner aretoa eta AHVko bulegoak. (22)	1995 1995	Javier Aguinaga Bizkaiko Foru Aldundia
Tapia xaboi-fabrika (Bilbo). (23)	1995	Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Saila
Dolomitas del Norte. (24)	1995	Industria Ondare eta Herri Laneko Euskal Elkarte
Malmasingo kaltzinazio-labeak	1995	Bizkaiko Foru Aldundia
Bilboko udaleko gas-fabrika. (25)	1995	Bizkaiko Foru Aldundia
Harino Panadera	1995	Bizkaiko Foru Aldundia
Zorrotzako tailerrak (26)	1995	Bizkaiko Foru Aldundia

Euskal Errotak. (27)	1995	Bizkaiko Foru Aldundia
Zorrotzako Armategiaren pabilioia	1995	Bizkaiko Foru Aldundia
La Navaleko dikeak, bulegoak eta zaindariaren etxea	1995	Bizkaiko Foru Aldundia
Bilbao Goyoaga	1995	Bizkaiko Foru Aldundia
La Galana	1995	Bizkaiko Foru Aldundia
ELEMENTUA	ESKERA- -DATA	ESKATZAILEA
Reinetako funikularra	1995	Bizkaiko Foru Aldundia
Alzolako zubia. (28)	1995	Bizkaiko Foru Aldundia
Atxuriko geltokia	1995	Bizkaiko Foru Aldundia
Industrias Químicas Canarias	1995	Bizkaiko Foru Aldundia
Muñoz Mendizábal "El Tigre" tailerrak	1995	Bizkaiko Foru Aldundia
Orkonerako pabilioiak (Teknikaren Museoaren garai bateko egoitza)	1995	Bizkaiko Foru Aldundia
Debako udal azoka. (29)	1995	
Tolosako Berdura azoka. (30)	1995	
Kataberako meatzaritza-esparrua	1996	Legazpiko udala
Antoñanako tren-geltokia	1996	Juan Ignacio Fernández de Landa
Antoñanako tren-azpiestazioa	1996	Juan Ignacio Fernández de Landa
"El Porvenir" etxe merkeen kooperatiba	1996	
Balmasedako hiltegia. (31)	1996	
Areatzako hiltegia. (32)	1996	
La Ceres irin-fabrika. (33)	1996	Bizkaiko Foru Aldundia
Zugastietako lurrunezko tren-makina	1996	Eusko Trenbideak
Aurrera lurrunezko tren-makina	1996	Eusko Trenbideak
Gipuzkoako lurrunezko tren-makina	1996	Eusko Trenbideak
Riberako azoka (34)	1996	
Bretxako arrandegiko enkante-aretoa (Donostia)	1996	
Mutrikuko arrantzaleen kofradia, enkante-aretoa, garabia eta sotoak	1996	
Zumaiako arrantzaleen kofradiako enkante-aretoa.	1996	
Yutera Arbillaga. (35)	1996	
La Canillako geltokia. (36)	1996	
Eguren tailerrak (Bergara)	1997	
Egiguren eta Atxurra ontziola. (37)	1998	
Gasteizko ur-depositua. (38)	1998	
Lekeitioko izotz-fabrika. (39)	1998	

Laborde Hnos (pabiloia, bulegoak, etxebizitzak, jangelak). (40)	2001	
Neguriko geltokia. (41)	2001	
Zubiateko buztingintzako labea (Eskoriatza). (42)		
Unión Cerrajera	2002	Kapiritzio elkarte
Irugurutxetako kaltzinazio-labeak		Irungo udala
Mollarriko minerala kargatzeko lekua		Zarauzko Udala
Ormaiztegiko biaduktua. (43)	2003	
Manufacturas Olanan. (44)	2003	
La Burrería, burdin biltegia. (45)		
Ubaldo Segurako orrazi-fabrika (Legazpia). (46)		
Acha eta Zubizarreta. (Bilbo). (47)		
Zorrozaurreko aeronautika (48)		

- 1.- Bilboko Udal Alondegia: kalifikatuta (1999)
- 2.- Portugaleteko merkatua: kalifikatuta (1996)
- 3.- Zur konpainia: eraitsita
- 4.- Taller Bonilla etxea: inbentariatuta (1995)
- 5.- Pontongo errota: eraitsita
Pontongo irin-fabrika: inbentariatuta (2001)
- 6.- Arboleda: espedientea irekita eta bideratzen ari dira. (2003)
- 7.- Gandariasko minerala zamatzeko lekua: eraitsita
- 8.- Gesaltzako Gatzagak: kalifikatuta (1984)
- 9.- Bizkaiko zubia: kalifikatuta (1984)
- 10.- Olleriasko labea (Elosu): inbentariatuta (1994)
- 11.- Jaizkibelgo draga: kalifikatuta (1992)
- 12.- Azucarera Alavesa: inbentariatuta (2000)
- 13.- Goya gasolindegia: inbentariatuta (1995)
- 14.- Leintz Gatzagako gatzagak: inbentariatuta (1994)
- 15.- La Encartada txapel-fabrika: kalifikatuta (2002)
- 16.- Elorrietako ur-ponpagailua: espedientea irekita eta bideratzen ari dira (2003)
- 17.- FESA (ERCROS): kalifikatuta (2002)
- 18.- Donostiako udaleko gas-fabrika: kalifikatuta (2003)
- 19.- Zarauzko azoka: kalifikatuta (1994)
- 20.- Cervecera del Norte: eraitsita
- 21.- Bizkaiko Labe Garaietako koke-labeak: eraitsita
- 22.- M. Angeles labea, zamatzeko garabiak...: eraitsita. Kalifikatuta (1999)
- 23.- Tapia xaboi-fabrika: eraitsita

- 24.- Dolomitas del Norte: inbentariatuta (2002)
- 25.- Bilboko udaleko gas-fabrika: eraitsita
- 26.- Zorrotzako tailerrak: inbentariatuta (1999)
- 27.- Euskal Errotak: espedientea irekita eta bideratzen ari dira (2003)
- 28.- Alzolako zubia: Kalifikatuta (1995)
- 29.- Debako udal azoka: inbentariatuta (1995)
- 30.- Tolosako Berdura azoka: Kalifikatuta (1999)
- 31.- Balmasedako hiltegia: Kalifikatuta (1996)
- 32.- Areatzako hiltegia: Kalifikatuta (1996)
- 33.- La Ceres irin-fabrika: inbentariatuta (1998)
- 34.- Riberako azoka: Kalifikatutako monumentugunea. Babes berezia (1996)
- 35.-Yutera Arbillaga: eraitsita
- 36.- Canillako geltokia (1996)
- 37.- Egiuren eta Atxurra ontziola: inbentariatuta (1998)
- 38.- Gasteizko ur-depositua: kalifikatuta (1998)
- 39.- Lekeitioko izotz-fabrika: kalifikatuta (1998)
- 40.- Laborde Hnos: Kalifikatuta (2001)
- 41.- Neguriko geltokia: kalifikatuta (2001)
- 42.- Zubiateko buztingintzako labea (2002)
- 43.- Ormaiztegiko zubia: Kalifikatuta (2003)
- 44.- Olanar manufakturak: espedientea irekita eta bideratzen ari dira (2003)
- 45.- La Burrería: espedientea irekita eta bideratzen ari dira (2003)
- 46.- Ubaldo Seguraren orrazi-fabrika: eraitsita
- 47.- Acha eta Zubizarreta: eraitsita
- 48.- Aeronautika: eraitsita.